

6.ZENBAKIA-2021-URRIA

GUKA



EUTANASIA

**ETETEA, NORBERE
ERABAKIA**



Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta komunitatearen ahotsa



www

**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

ERRESPETUA



MAILO OIARZABAL

Nahiago dugu horretaz ez pentsatu, horretaz pentsatzen hastea beste erremediorik ez daukagun bitartean. Heriotzaz ari naiz, erreportaje hau osatzeko hitz egin dudan lagun guztien arabera gure gizartean oraindik ere tabu handia den zera horretaz. Maite ditugunen heriotzaz, norberaren heriotzaz. Den-deno, salbuespenik gabe, iritsiko zaigunaz. Bizi den oro hilko delako; egia sinplea, egia-rik behinena, baina ez horregatik eraman errazagoa.

Errespetua ematen du heriotzak. Bizitzeak nahiko lan ematen du boladaz, noiz eta nola etorriko den ez dakigun bidearen azken pauso horretan arreta jartzen hasteko. Badakigu hiltzea saihestezina izango dugula; baina ondo gauden bitartean, gure kezken ilaran azkenputz. Eta normalena iruditzen zait neuri. Baina badira

heriotzari, beraienari edo gertuko batenari, begietara begiratu beste erremediorik ez dutenak. Guztioi ez zaigu halakorik gertatuko, baina edonori gerta dakioko. Egun batean ondo zaude, eta hurrengoan erremediorik ez daukan gaitz bat duzula esaten dizute, edo erabateko ezintasun batek hankaz gora jartzen dizu bizimodua. Horretaz badaki zerbait Juanjo Uriak, Ana Mosquera emazteari alboko esklerosi amiotrofikoa (AEA) diagnostikatu ziotenetik hamasei urte joan direnean.

Joan den ekainetik Hego Euskal Herrian indarrean den Eutanasiaren Legea aipatutako edo antzeko ataka estuetatik igaro behar izan duten milaka lagunen bultzadaren fruitua da hein handian. Probatu ez duenak ez dakielako zer den maite dituzunak hil egin behar eta ezinean ikustea, sufrimenduak deuseztatuta, herio bizian edo guztiz joanda. Halakoak

saihesteko edo saihesten ahalgintzeko bide bat ireki du lege berriak, egoera jakin batzuetan bederen, bizitzarekin bukatzea norbanakoen borondatean eta erabakian oinarrituta.

Berri-berria izanik, legea praktikan nola gauzatuko den ikusteko dago; arauaren abaguneak, arriskuak eta hutsuneak mahai ganean jarri ditu Eneko Etxeberria EHUKo Unesco katedrako kideak. Eutanasiaren eta legearen kontra daudenek ere hitz egin dute. Eutanasia eskubidea dela gogorarazi du Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarteko (DHE) Mario Unamunok; aukera bat, eta ez betebeharra.

Legeak lege, heriotza onaren gaiak askorako ematen duela jabetzeko balio izan dit erreportaje hau egiteak. Bizitzari aurre egiteko bezala, heriotzari aurre egiteko ere hamaika modu daude. Errespetua mezezi dute guztiek. ■

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 4.700 ale



Enpresa laguntzaileak:



DANOBATGROUP



DOMUSA
T E K N I K


BIZITZAREKIN AMAITZEA ESKUBIDE

Eutanasia eskatzea legekoa da dagoeneko Hego Euskal Herrian. Urte luzeetako eskaera arautu dute, eta araututakoa zuzen betetzen dela zaintzeko eta jarraitzeko unea iritsi da. Kezkak eta zalantzak gorabehera, heriotza ahalik eta duinena izateko eta alferrikako pairamenak ez luzatzeko aukerari ireki dizkiote ateak, eta pozik dira eskubide hori aldarrikatzen aritu diren herritarrak.

Testua: **Mailo Oiarzabal.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea eta utzitakoa.

Joan den martxoaren 18an Espainiako Kongresuan behin betiko onarpena jaso ondoren, ekainaren 25etik indarrean da Eutansiaren Legea Hego Euskal Herrian. Horren arabera, Espainiako Estatuan "gaixotasun larri eta sendaezina" edo "pairamen larri, kroniko eta ezintasun eragile bat" dutenek eska dezakete eutanasia, hiltzea, egoera horrek beren autonomian eragiten badu eta "sufrimendu fisiko edo psikiko iraunkor eta jasanezin bat" eragiten badie. Eutanasia eskubide eta osasun sistemaren barruan erabil daitekeen zerbitzu bihurtu du legeak.

"Albistea oso pozgarria izan da guretzat", dio Juanjo Uriak (Zarautz, 1965) eutanasia arautzen duen legearen onarpenaz. Guka ari da Uria, Ana Mosqueraren senarra da eta. Mosquerak alboko esklerosi amiotrofikoa du, AEA –gatzelaniazko ELA siglekin ezagunagoa–; endekapenezko gaixotasun neurologikoa da AEA, degeneratiboa, besteak beste ahultasun progresiboa eta gihar-atrofia dakartzan gaitz sendaezina. "Duela hamasei urte diagnostikatu zioten gaitza emazteari", kontatu du Uriak, Mosquerari gaitza nola hasi zitzaion eta zer zuen jakin arteko bidea bukaeratik hasita azalduz: "Garbiketa lanak egiten zituen emazteak, eta oso nekatuta etortzen zen etxera, indarrrik gabe. 38 urte zituen. Pixkanaka-pixkanaka joan zen indarra galtzen, oreka galtzen... Probak egiten hasi ginen, eta ia bi urte pasatu



genituen horretan. Azkenean, Martin Maso neurologoak Bilbora bidali gintuen, eta han esan ziguten diagnostikoa: Anak AEA zuela, eta bi eta bost urte arteko bizi itzaropena zeukala. Bi alaba gazterekin... 'Orain ez, orain ez', esaten zuen emazteak. Kolpe oso gogorra izan zen; niretzako ere bai, baina emaztearentzat... Aurreneko urteak oso gogorrak izan ziren berarentzat".

Bi eta bost urte arteko bizi-itzaropena zuela esan zioten Mosquerari. Hori da, izan ere, duen gaixotasunaren kasu gehien-gehienetan betetzen den epea. Baina hamasei urte joan dira Zarauzkoari AEA diagnostikatu ziotenetik. "Pozgarriena da Anaren kasuan oso mantso ari dela garatzen gaitza", dio Uriak. "Berak esaten duen bezala, egunetik egunera. Borrokatzen jarraituko duela esaten du; ez dakiela bihar nola egongo den. Orain hasi da hitz egiterakoan huts egiten. Etxea egokituta daukagu, baina ezin da bakarrik laga; autonomia oso eskasa dauka". Hala ere, "egin ahal duen guztiaegin" egiten duela nabarmendu du Mosqueraren senarrak. Hasieran halakorik nahi ez bazuen ere, gurpildun aulki elektriko batekin ateratzen da kalera, lagunekin egotera edota enkargu txikiren bat egitera. Bidaiatzeari ere ez dio uko egiten Mosquerak; abuztuan egin zuen azkena, Herbehereetara, han bizi duten alaba gazteena bisitatzera, alaba zaharrenak eta lagun batek lagunduta. "Gogor egiten dio gaitzari", azaldu du Uriak. Emaztearekiko miresmena garden nabari zaio zarauztarrari: "Ez dakit zeinek eman dion indar hori, baina zera berezi bat dauka barruan emazteak. Atetik barrura edukitzen ditu arazoak, erorketak eta abarrak, baina bera da besteoi aurrera jarraitzeko indarra ematen diguna".

AEA dutenen Adela elkartearekin "oso eskertuta" dago Uria, urte hauetan guztietan "asko lagundu" dietelako, "bereziki emazteari". Baina elkartean "lagun asko ikusi ditugu hiltzen eta gehiegi sufritzen", dio Mosqueraren senarrak, eta antzeko bukaerarik ez du nahi emaztearentzat: "Badakigu zer etor daitekeen, eta Anak esaten du ez duela horrelakorik nahi. Anak ez du nahi, eta nik ere ez. Ez diot lagako sufritzen, hori oso argi daukat".

Tabua leuntzen

Hainbat elkarteren eta familiaren heriotza duinaren aldeko borroka luzearen ondoren iritsi da martxoan onartu eta ekainetik indarrean den eutanasiaren legea. Etimologikoki "heriotza ona" esan nahi du, hain zuzen ere, eutanasiak. Uriak eta Mosquerak



Juanjo Uria. ARNAITZ RUBIO APREA

ez dute zuzenean parte hartu eutanasiaren aldeko eskaera horretan, baina "harreman handia" dute Lorente-Tellaetxe familiarekin. 2019ko martxoan hil zen Maribel Tellaetxe, hamabi urtez alzheimerra jasan ondoren; gaitz horren gordinena iritsi aurretik adierazi zuen Tellaetxek bizitzeari utzi nahi ziola, eta haren nahia betetzeko borrokatu zuten etxekoek, baina legea berandu iritsi da Tellaetxerentzat. "Haiek oso lan gogorra egin dute, beraiek izan dira Euskal Herrian eskaera hori indartu dutenak. Prozesua oso luzea izan da, baina azkenean lortu dugu, denon artean", dio Uriak.

DMD elkarte (Derecho a Morir Dignamente) da Espainiako estatuan eutanasia legeztatzearen aldeko borrokan nabarmendu dena. 1984an sortu zen elkarte eta Duintasunez Hiltzeko Eskubidea (DHE) izena hartzen dute Hego Euskal Herrian dituen bi ordezkariak, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bat baitago, eta Nafarroan bestea. "Elkartea federala da, Espainiako estatu osoan dago zabaldua. Federala den aldetik, Nafarroak bere bidea jarraitzen du, eta guk gurea, baina biok erabiltzen dugu euskarazko izena. Praktikan, gainera, oso lotuta gaude EAEko eta Nafarroako elkarteak; formalki ez gara bat, baina oso gertukoak gara", azaldu du Mario Unamunok (Azkoitia, 1966). Duela bospasei urte egin zen DHEko bazkide Gasteizen bizi den azkoitiarra, baina askoz lehenagotik zetorkion norberaren heriotzaren gainean erabakitze eskubidearen inguruko kezka.

Ramon Sampedro marinel eta idazle galiziarren kasuak piztu zion gaiarekiko interes bizia Unamunori. 25 urte zituenetik


"Badakigu zer etor daitekeen, eta Anak dio ez duela horrelakorik nahi"

tetraplegiko zegoen Sampedro, lau gorputz adarren erabateko paralisia jeta, istripu baten ondorioz. Auzibideari ekin zion, lagundutako suizidioa baimendu ziezaioten eta hiltzeko ezinbestekoa zuen laguntza emango zioten lagunei deliturik ez egozteko eskatuz. Justiziak ez zion halakorik baimendu, baina bere asmoa bete egin zuen: 55 urterekin hil zen Sampedro, 1998an; laguntza jasota, ezinbestean. Haren kasuak oihartzun handia izan zuen; Alejandro Amenabar zuzendariak Mar adentro (2004) filmean jaso zuen, besteak beste. "Garai hartan 30 urte-tik gertu ibiliko nintzen, eta barru-barruraino sartu zitzaidan

EUTANASIA ESKATZEKO PROZEDURA

- 18 urtetik gorakoek eska dezakete eutanasia. Erabakia "modu autonomo, kontzientze eta informatuan" hartzeko eta eskaera egiteko "gai" izan behar dute eskatzaileek.
- Eskaera idatziz aurkeztu behar da, bitan, hamabost eguneko tartearekin. Eskaerak norberaren medikuari aurkeztu behar zaizkio. Bigarren eskaera aurkeztu eta 24 ordura, eskaerarekin aurrera egin nahi duen ala ez baieztatu behar du eskatzaileak. Ondoren, pazientearen medikuak beste sendagile bati helarazi behar dio eutanasia eskaera. Bigarren mediku horrek hamar eguneko epea du eskaerak baldintzak betetzen dituen ala ez jakinarazteko. Iragazki hori gaingitu eta gero iritsiko da eskaera dagokion berme eta jarraipen batzordera.
- Medikuak txostena aurkeztu eta bi egunera, gehienez, izendatu beharko dituzte eskaera aztertuko duten batzordekideak; osasungintzako profesional bat eta legelari bat, hain zuzen.

- Horiek gehienez zazpi eguneko epea izango dute eskaera aztertzeko eta txostena aurkezteko. Azken erabakia batzordeburuaren mende egongo da. Hark eutanasia egitea baimentzen badu, pazientearen medikuari jakinaraziko dio, gauzatu dezan.
- Medikuak pazientearen eskaera onartzen ez badu, bi aste epea izango du eskatzaileak erabaki horri helegitea jartzeko, berme eta jarraipen batzordera jeta. Eutanasia eskaera atzera botatzen duena batzordea bera bada, berriz, auzitara jo dezake eskatzaileak.
- Pertsona eskaera egiteko "gai edo kontziente" ez bada ere aplikatu dakiok eutanasia, beti ere eskaera aurrez idatzita eta lege jasota utzi badu.



EUTANASIA LEGEZKO


Gaur egun, munduko zazpi estatu hauetan da legezkoa eutanasia:

- Herbehereak (2002tik)
- Belgika (2002tik)
- Luxenburgo (2009tik)
- Kanada (2014tik Quebec-en, 2016tik estatu osoan)
- Kolonbia (2018)
- Zeelanda Berria (2021eko azaroan jarriko dute indarrean)
- Espainia (2021)



Sampedroekin gertatu zena, nolako bidegabekeriak gerta zitezkeen ikustea. Pertsona hark ez zeukan aukerarik bere bidea egiteko, nahi zuena lortzeko. Estatuak ez zion aukerarik ematen; are gehiago, ukatu egiten zion aukera izatea. Ikaragarri injustua eta krudela iruditu zitzaidan, beste krudeltasun asko baino okerragoa, ez dakit zergatik”, kontatu du azkoitiarrak. Sampedroren kasuaren inguruan zabaldu ziren albisteen bidez izan zuen DHE elkartearen berri. “Pentsatu nuen: ‘Bihar bertan nahi dut jende horrekin egotea eta egiten dutenaren berri izatea’. Baina, etortzen da hurrengo eguna, eta ‘biharko utziko dut’; eta biharamonean, beste horrenbeste...”. Orduko “berroaldia” igarota, Iruñean lanean ari zela berri zita zion Unamunori DHE-rekiko interesa, eta, orduan bai, elkartearen sartzearabaki zuen. “Arazo pertsonal batekin bat egin zuen denboran bazkide egiteko eman nuen pausoak, horrek ere bultzatu ninduen elkartearen sartzera”, gaineratu du.

Heriotza onaren aldeko hiritar mugimendua da DHE. “Heriotzaren gainean dagoen tabua hausten saiatzea izan da hasieratik elkartearen xedeetako bat”, azaldu du Unamunok, “heriotzari buruz hitz egin ahal izatea; heriotzaz, oro har, eta baita norberaren heriotzaz ere, nolako izatea nahiko genukeen, eta abar”. Elkartearen bileretan “bizipen deigarri askoren berri”



izan duela aipatu du azkoitiarrak, eta bizipen horiek entzunda ondorio nagusi bat atera du: "Heriotzari buruz hitz egitea, norberaren heriotzaz eta gertukoenez, edo oro har heriotzaz, ez da erraza, kostatu egiten da. Eta gaia argi eta garbi ateratzen denean, batzuetan atzeraka egiten dugu. Gero eta gutxiago, hori ere hala da". Unamunoren iritziz, heriotzaren inguruko tabua "oraindik indartsua" da, baina "pixkanaka leuntzen" ari da: "Gure elkartearen eta antzekoen lanaz gain, sortu dira egitasmu berriak, Death Cafe eta horrelakoak. Ikusten dugu kezka bada-goela, eta horrek ere laguntzen du tabua gainditzeko. Eta uste dut, zorionez, eutanasiarena bezalako lege bat onartzeak ere laguntzen duela. Uste dut, zorionez, pixkanaka-pixkanaka gero eta errazagoa dela eta izango dela heriotzari buruz hitz egitea, eta norberak bere heriotza nolakoa izatea nahi lukeen azaltzea".

Uriak ere argi ikusten du heriotzaren gaineko tabua hor da-goela, "gure artean". Heriotza duina, eutanasia, heriotzari lotutako erabakitze eskubidea... Gaur egun heriotzaren gaia "pixka bat gehiago" gizareratzen dela iruditzen zaio, "komunikabideen bitartez eta", baina gehiago sakondu beharko litza-teke, bere ustez. "Denok hilko garela jakin arren, ez gara horretan pentsatzen jartzen. Nik uste dut txikitatik erakutsi beharreko zerbait dela: bizitza bada-goela, baina heriotza ere bade-



Mario Unamuno. UTZITAKOA

la. Umeekin hitz egiterakoan beldurra-edo sentitzen dugu, baina uste dut eskolan lantzeko gai garrantzitsua izan beharko litzatekeela". Emazteari AEA diagnostikatu eta haren bizitzari epe jakina jarri ziotenean, aurrez aurre begiratu behar izan zioten gaiari Urija-Mosquera sendian: "Orain arte, familietan heriotzaz hitz egiteko ohiturarik ez da egon. Tabu bat izan da, batetik; eta bestetik, ondo gaudenean heriotzaz gogoratu ere ez gara egiten. Guri kostatu zaigu, baina gaur egun normal hitz egiten dugu heriotzaz etxean, gaiaz hitz egitea egokitzen denean; ez da eguneroko kontu bat, baina bai".

Eskubidea, ez betebeharra

Norberaren bizitzaren amaierari buruz erabakitzeko eskubidea sustatzen du DHEk, eta eutanasia hor kokatzen dute bete-betean. Hala ere, Unamunok gogoetara bultzatzen duen zehaztapena egiten du puntu horretan: "Gure elkartean ulertzen dugu heriotza duinak izan behar duela bizitza duin baten amaiera. European hitz egin dezakezu horretaz, baina nola hitz egingo duzu heriotza duinaz, esaterako, Afrikako leku gehienetan? Heriotza duina eskatzen dugun neurrian, bizitza duina ere eskatzen dugu".

DHEren egitekoen artean dago aurretiazko borondateen agiriak sustatzea ere. Eutanasia Legeak dioena kontuan hartuta, tresna garrantzitsuk izan daitezke agiri horiek. Eutanasia eskatzeko, erabakia hartzeko, buru gaitasuna izan behar du eskaiztaileak ezinbestean, eta legeak aurreikusten dituen muturreko

"Ulertzen dugu heriotza duinak izan behar duela bizitza duin baten amaiera"

osasan arazo larriak agertzen direnean, gaixoek ez dute beti gaitasun hori izaten. Aurretiazko borondateen agirian, horrelako ataka batera iritsita bakoitzak zer eta nola bukatu nahi lukeen zehaztu eta jaso daiteke; orain, legea indarrean dela, baita eutanasia eskatu ere. "Bakoitzak nahi duen bezala, baina gaitasuna daukagun bitartean, gauzak nola izatea nahi dugun zenbat eta argiago utzi, hobeto; besteak beste, baita gure ingurukoei ardua kentzeko ere, amaieran egoera zailean suertatzen baldin bagara. Guk erabaki baldin badugu, eta erabaki hori idatziz jasota badago, kendu egiten diegu ardua hori seme-alabei edo ingurukoei. Izan ere, oso gogorra izan behar du egoera zail baten aurrean zure amaren edo aitaren izenean erabakitzea", azaldu du azkoitiarrak.

Joan den udaberrian egin zituzten Ana Mosquerak eta Juanjo Uriak aurretiazko borondateen agiriak, eutanasia eskaera jasota. Uriak azaldu duenez, erantzuna ere badute esku artean: agiriak onartu dizkiete. "Lagun batek lagundu zigun agiriak zuzentzen eta hark esan zigun komenigarria zela denok egitea; ez dakigu bihar istripu bat izan al dezakegun eta nola gera gaitzkeen. Poz handia izan zen onarpenaren berri eman zigutenean. Lasaitasuna ematen du, alde batetik. Anak dio orain dagoen bezala ez duela horretan pentsatu ere egin nahi. Ahal den beranduena izanda hobeto, noski", dio zarauztarrak, baina aurreratu du zehatz jasoa dutela eutanasia noiz aplikatu nahi duten, lege berriak eskatzen dituen protokoloen barruan. "Berak erabakita dauka noiz bukatuko duen bere bizitza, non egongo den bere muga. Oso zaila izan da onartzea, baina onartuta dauka. Erorketa bat izaten duenean, edo baldarrago ikusten dudanean, gauza okertzen ari dela ikusten dudanean... Alferrik da ezetz esatea, neuk ere pentsatzen dut nola izango ote den. Nik ere onartuta daukat egun batean –noiz ez dakit–, ailegatuko dela momentu hori. Gogorra izango dela? Ezezkoa esango banu, gezurra lizateke. Nola izango den? Ez dakit. Emazteak esaten du gustatuko litzaiokeela etxean izatea, familiarekin agurtzea goxo-goxo, eta joatea".

Eutanasia eskubidea den heinean, Unamunok azpimarratu du "aukera bat" dela, "ez betebeharra". Azkoitiarrak argi du "heriotza duinaren afera, muinean, norbanakoen erabakitze-ko eskubide bat" dela, eta "askatasun pertsonalaren eremuan" kokatzen du. "Eutanasiaren Legea onartzea zoriontzekoa da, gizarte osoa zoriontzekoa, baita eskubide horren kontra daudenak ere. Orain arte ezin zuten aukeratu, baina orain, haiek ere badute aukera hori, gainontzeko guztiok bezala. Legeak berdindu egiten ditu eutanasiaren alde zein kontra daudenak".

Bidea egiten hasi berria den legea betetzen dela "zaintzea" eta gizartean "eskubide horren gaineko informazioa zabaltzea" dira DHEko kidearentzat bere elkartaren erronka berriak. ■

Eneko Etxeberria: "Lege hau albiste ona da, baina ikusi egin beharko da nola aplikatzen den"

ENEKO ETXEBERRIA EHU-KO UNESCO KATEDRAREN KIDEA



Eneko Etxeberria. ARNAITZ RUBIO APREA

Espainiako estatuan eutanasia arautzeko onartu den legea eta bere erronkak aztertzeko ikastaroa egin zuen joan den uztailean Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedrak Donostian, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) Udako Ikastaroen barruan. Katedra horretako kide da Eneko Etxeberria (Azpeitia, 1971) Zuzenbide irakaslea, eta bera izan zen jardunaldiaren zuzendaria. Etxeberriarentzat, "legea albiste ona da, baina ikusi egin beharko da nola aplikatzen den".

Jorratzen eta arautzen duen gaia kontuan hartuta, "kulturalki oso


"BATZORDEAK LEGEA OZTOPATZEKO EZ OTE DIREN ERABILIKO BELDURRA DAGO"

lege esanguratsua eta garrantzitsua" dela uste du Unesco Katedraren kideak, "eztabaida bizi baten barruan kokatzen delako". Eztabaida horren erakusle gisa aipatu ditu lege onartu berriari jarritako helegiteak. Kongresuko bozketan, PP, Vox eta UPN alderdietako ordezkariak legearen kontra agertu ziren, eta Voxek lehendabizi eta PPK handik gutxira, legearen kontrako helegite bana aurkeztu zuten Espainiako Auzitegi Konstituzionalean, eta bi helegiteak aztertzea onartu du auzitegiak. "Helegite horiei erantzunez, Auzitegi Konstituzionalak guttiz ontzat eman dezake

legea, atal batzuk aldatzera behartu edo legea osorik atzera bota", azaldu du Etxeberriak.

Eutanasiaren Legea lehen urratsetan besterik ez dago, izan ere, nola garatzen den ikusteko dago. Esaterako, legeak jasotzen du eutanasia eskaera bakoitza aztertzeko eta bideratzeko berme eta jarraipen batzordeak eratu behar direla erkidegoz erkidego. Etxeberriaren esanetan, baina, batzorde horien eratzearen eta funtzionamenduaren inguruan "eztabaida handiak sortu" dira: erkidego batzuetan batzordea bera sortzea luzatuko ote duten, batzordekide zein izendatuko dituzten eta horien borondateak nondik joko duen, batzordeak eutanasia eskaerak burokrazian itotzeko tresna bihurtuko diren... "Argi dago politikariek ez dutela horretaz gehiegi hitz egin nahi, baina kontu horiek hor daude, eta batzordeak legea oztopatzeke edo bere aplikazioa moteltzeko ez ote diren erabiliko beldurra dago". Legeak medikuei aitortzen dien kontzientzia-eragozle izaera ere "polemika iturri" izan daitekeela dio Etxeberriak. . "Legeak dio kontzientzia-eragozpen adierazpenak banakakoak izan behar direla, oztopatzen duen bakarra da kontzientzia-eragozpen adierazpenak kolektiboak izatea. Baina hor badaude aurrekariak, adibidez, Nafarroan abortoaren legearen aplikazioarekin gertatu izan dena. Beraz, kontzientzia-eragozpen hori nola garatzen den ikusteko dago, eta horrek nola eragin dezakeen legea praktikan jartzea".

Lege berriak eutanasia aktiboa arautzen duela azpimarratu du hark. Legeak arautzen ez dituen baina erabil daitezkeen eta delitu ez diren eutanasia modalitateak badaudela "aitortu behar" dela deritzo: "Eutanasia pasiboa guztiz onartuta dago, eta zeharkakoa ere janda dauka, nolabait esateko, gizarteak. Sufrimendua eragoztearen aldeko aurrerakada kultural handia eman da azken urteetan. Badaude kontrako jarrerak ere; Eliza guztiz kontra agertu da, adibidez. Hala ere, ikusiko dugu zer gertatzen den legeak jasotzen duen bigarren supozizio horri lotutako kasuren bat planteatzen denean". Izan ere, Etxeberriak uste du gaixotasun larrien eta sendaezinen kasuan "hiltzeko data bat, epe bat, duten pertsonez ari garela", eta horrelakoetan ulerberagoa dela jendea, oro har. "Beste supozizioa askoz polemikoagoa izan daiteke: sendabiderik ez duen eta ezgai bihurtu zaituen gaixotasun bat duzu, pairamen handia eragiten dizuna, baina horrek ez dizu heriotza epe laburrean eragingo". Azpeitiarrak ez du uste lege berriak eutanasia eskaera olderik ekarriko duenik. Herbehereak izan ziren eutanasia legeztatu zuten lehen estatua, 2002an. Han, gaur egun, legea martxan jarri eta ia hogeit urtera, "urtean 5.000-6.000 eskaera" izaten dituztela dio Etxeberriak. Erreferentzia hori kontuan hartuta, hemen lehen urtebetean eutanasia eskaera "oso gutxi" izango direla aurreikusten du. "Kontatutakoak eta kasu oso argiak diren bitartean, iruditzen zait polemikak ere ez direla asko izango", gaineratu du. ■



Desnibela 477m
Zailtasuna ●●●●●
Luzera 4,2km
Denbora 58minutu

Erreferentziak
0.00 Beizamako Aterpetxea
0.08 Lixibatokia
0.17 Sagastia
0.26 San Lorentzo ermita
0.28 Panel Panoramikoa
0.58 Ostatu Zaharra



BEIZAMAREN AHOTSARI JARRAIKA

JULEN IMAZ

Gipuzkoako bihotzean dago Beizama, edo hala dio behintzat herriko plazan kokatuta dagoen harrizarrak. Bertan bada Beizamako Ahotsa izeneko ibilbidea, etxeko txikienekin egiteko aproposa dena. Herriko kale nagusitik abiatzen da, plazatik metro eskasetara, eta ibilbide erdia maldan gorakoa da, baina atsegina, 200 metrotik beherako desnibelarekin.

Abiatu eta segituan topatuko du mendizaleak antzinako lixibatoki bat. Iraganera begiratzeko eta Beizamako emakumeek egindako lana balioan jartzeko espazioa da hau. Sagarrondoan artean gorantza jarraitzen du bideak. Paisaiaren ederraz gozatzuz, Aginamendi auzorantz gerturatzeko da, eta bertan, geldiadi txiki bat egin daiteke San Lorentzo ermitako atarian eseri eta akaso mokadutxo bat egiteko. Ondoren, ibilbidearen punturik urrunenera abiatuko da mendizalea. Bertan, informazioa eskaintzen duen panel panoramiko ez ezik, sekulako bistak ere topatuko ditu bisitariak.

Igotakoa jaisteko, joandako bidetik itzuli behar da. Behitegira iritsitakoan, ordea, ezkerreko bidea hartu behar da, eta txorien kantuek la-

gunduta errepidera eta azkenik herrira iristen da, Bakardadearen baselizatik pasa ondoren.

Goizpasarekin amaitzeko, herriko ostatua toki bikaina izango da sabela bete eta ibilbidea borobiltzeko. Gainera, umeentzat sorpresa ezin hobea dago bertan: Txiki Park bezala ezagutzen den haur parke estalia.

Motzean

Gipuzkoako erdigunean dago kokatuta Beizama, 485 metroko altueran, eta 16,55 metro koadroko azalera du.

Autoz joan eta herriko aparkalekuan uztea da onena txangoari ekiteko.

Azkoiti aldetik abiatu, nahiz kostaldetik, Azpeitira iritsi behar da aurrena, eta bertatik GI-2635 errepedea hartu, herrirantz. Azpeititik 11,9 kilometrora dago. Eskualdeko puntu urrunenetik, Aiatik, 39,5 kilometrora.

Azpeititik pasa behar ez duten bakarrak errezydarrak dira, Bidanitik barrena iritsi daitezkeelako, GI-2634 errepidetik.



Xabat Olaizola aurkezleak Iñigo Altuna Beizamako aterpetxeko arduraduna izan du lagun ibilbide osoan zehar.



TELEBISTAN ERE

GUKA!
erto

